

IKASTETXEA	ITURRAMA BHI	2020-2021
ARLOA / GAIA	IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA 2	
ETAPA - MAILA	BATXILERGOA	IRAKASLEAK: IMANOL URIA / IKERNE ILARREGI

0	<p>Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.</p> <p>Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.</p> <p>Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.</p> <p>Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko Arreta ez-Presentzialaren Plana.</p>
----------	--

1	HELBURU DIDAKTIKOAK
	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleek eskura dituzten ikus-entzunezko produktuen bilakaera teknologikoa eta estetikoa identifikatzea. 2. Ikasleek errealitatea eta ikus-entzunezko komunikabideek ematen diguten irudiaren arteko antzekotasunak eta aldeak ulertzea 3. Ikasleek irudi baten irakurketa objektiboaren eta subjektiboaren artean dauden aldeak ulertzea. 4. Ikus-entzunezko dokumentuen produkzioan esku hartzen duten funtsezko osagaiak ezagutzea. 5. Irudi finkoen eta mugimendu dunen produkzio errazak egitea. 6. Ikus-entzunezko mezu eta produktuen aurrean, hartzaille selektibo eta kritikoak izatea. 7. Irudiak komunikazio helburuarekin sortzeko baliabide tekniko eta materialak ezagutu eta manipulatzeko. 8. Publizitate proposamen desberdinen komunikazio helburua baloratzea. 9. Publizitate mezuek produktu eta zerbitzu jakin batzuen kontsumoaren ondorio eta eraginei buruz sortzen dituzten distorsioen gaineko arreta erakartzea. 10. Ikus bideak komunikazioaren eremuan eta egungo gizartearen agerpen artistikoetan duten garrantzia bereiztea eta baloratzea. 11. Irakasgai honetako hiztegi berezia erabiltzea, ohiko hiztegiari hura erantsita hizkuntza zehaztasun handiagoaz erabiltzeko eta komunikazioa hobetzeko. 12. Baterako Hezkuntzaren ikuspegia zenbait proiektuetan landuko da. 13. Euskara komunikazio-tresna izatea.

2	HELBURU OROKORRAK (IKUSI WEB ORRIA)
----------	--

3	EDUKIAK _UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA		
	1.Ebaluaketako Unitateak	2.Ebaluaketako Unitateak	3.Ebaluaketako Unitateak
	1-.Irudien eta multimedia mezuen azterketa.	3-. Soinuaren eta Irudiaren integrazioa ikus entzunezkoen eta new medien sorreran.	5-.Ikus entzunezko hedabideak
	2-.Publizitatea	4-. Ikus entzunezko Eta multimedia ekoizpenaren ezaugarriak hedabide ezberdinetan.	

OHARRA: Denboralizazioan aldaketak egon daitezke.

4	METODOLOGIA
	<p>Ikasgai honen edukiak prozedurari dagozkio kontzeptuei baino gehiago, eta kontuan hartu behar da irakasgai honen izaera orientatzailea, sarbide gisakoa eta instrumentala.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▫ Metodologia aktiboa: ikasleen esperientzietan oinarritua, ikasleak izan behar dira beren ikaste-prozesuaren protagonistak, teknika grafiko-plastikoei dagozkienak, euskarriak, materialak, tresnak eta prozeduren saiakuntzak eginez eta horietan trebetasuna lortuz. TTBBri dagokionez beste tresnen artean Classroom erabiliko dugu. ▫ Metodologia parte hartzailea: Talde lanetan (IK-KI metodologia) eta talde osoko eztabaidetan parte hartuz. ▫ Metodologia ikertzailea: Ikasleak pinturaren hainbat aplikazio behatzeko eta ikertzeko testuinguruetan

sartzen dira; honela ezaquerak eta trebetasunak bereganatzen dituzte.

5

BALIABIDEAK

- Gela.- INFO 4, ordenagailuak daude lanak burutzeko. • Telebista eta VHS magnetoskopia. • Bi bideo-kamera. • eta truka aparatua. • S VHS Magnetoskopia. • Argazki-kamera digitalak eta Argi fokuak. • Ikasgaiari buruzko liburutegi txiki bat. • Mikrofono bat.
- Apunteak fotokopien bidez emango dira eta classrom-ean izango dituzue

6

EBALUAZIO SISTEMA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK (IKUSI WEB ORRIA)

EBALUATZEKO PROZEDURAK, BALIABIDEAK EDO TRESNAK

Ebaluatze erabiliko diren tresnak honako hauek izanen dira: **ariketa praktikoak** (taldean eta bakarka), **azterketak** eta **gelan parte-hartzea** edo/eta **jarrera** (interesa, materiala eta tresnen ardura). Ikasleen behaketa sistematikoa izanen da eta honek kalifikazioetan eragina izanen du.

Azterketak: Kurtsoan zehar hiru azterketa egingen dira, azkenekoa globala izanik. Azken hau, kurtsoa edo bere zatiren bat berreskuratu behar dutenek bakarrik egingen dute.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Lan praktikoak	% 60
Azterketak	% 35
Jarrera	% 5

Ebaluazioa gainditzeko ezinbestekoa da lan guztiak egitea eta ematea. Baten bat ez egiteak ikasgaia ez gainditzea ekarriko du. Ez da azterketaren notarekin batez bestekoa egingen.

- ❖ Lan bakoitzak emateko epe bat izanen du. **Beranduago emateak notaren jaitsiera** ekarriko du, gehienez bi puntu. Bi aste edo gehiago beranduago entregatzean, lanak berreskurapen trataera jasoko du.
- ❖ Ebaluazio bakoitzean azterketa teoriko bat egingen dugu. Azterketak ez badituzue gainditzen edo beren batez bestekoa suspentsoa denean, **azterketa globala** ere egin beharko duzue.
- ❖ Azterketan 3,5 edo gehiagoko nota atera behar da lanen notarekin batez bestekoa egiteko. Batez besteko hori suspentsoa bada, azterketako nota suspentsoa bada, errekueratu beharko duzue gainditzeko.
- ❖ Ohiko eta ez ohiko deialdietako azterketaren nota gehiengoa 5 izanen da.
- ❖ Bigarren eta hirugarren ebaluazioak gainditzeko **aurreko ebaluazioak gaindituta** izan behar dituzue.(Ikus berreskurapen sistema)
- ❖ Ikasgaia gainditzeko gutxienez saioen %80etara etorri behar duzue. Honetarako ez dugu berezitu hutsegite justifikatu (justifikazio ofizialak izan ezik) eta ez justifikatuen artean.
- ❖ Euskara, institutuan, komunikazio-tresna da. Beraz, ez erabiltzeak penalizazioa ekarriko du.

7

BERRESKURAPEN SISTEMA

-Ikasgaia errekueratze suspentsoaren zergatiari begiratuko diogu. Lanen bat falta bada, epe batean eman beharko duzue; gainditi gabeko ebaluazioko azterketa suspentsoa bada, errekueratu beharko duzue. Ebaluazioa gainditzen ez duzuen lanen bat ez emateagatik, hurrengo ebaluazioren errekueratze ematen den epean eman beharko duzue eta bere notarik altuena 5 izanen da. Epea bukatu ondoren ez da onartuko eta beste lan ezberdin bat egin beharko duzue errekueratze. Lan hauek azterketa unean emanen dizkiozue irakasleari.

-Nahikotasunera : 1 edo 2 ebaluazioak suspenditutik dutenak nahikotasunera joango dira. ez- gehiengo nota 5 izanen da.

-Ezohiko frogak: azterketa egiteaz aparte, lan batzuk ere aurkeztu beharko dituzue. Hauek prestatu ditugu ikasle bakoitzaren gabeziaren arabera. Lanak irakasleari eskutan azterketa egunean entregatu behar dira.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.